

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	Ikasbidea Ikastola IPI	kodea: <i>código:</i>	010012
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	DBH 4
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	Gizarte		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>áreas/materias integradas</i>	Historia		
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza eta literatura komunikatzeko kompetentzia - Matematikarako kompetentzia - Zientziarako kompetentzia - Teknologiarako kompetentzia - Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia - Arterako kompetentzia - Konpetentzia motorra 		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Alba Fernández Jaione Muzás	ikasturtea: <i>curso:</i>	2022-23

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiritu ekintzailerako kompetentzia
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<p>Diziplina barruko oinarrizko kompetentziak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia 2) Matematikarako kompetentzia 3) Zientziarako kompetentzia 4) Teknologiarako kompetentzia 5) Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia 6) Arterako kompetentzia 7) Konpetentzia motorra <p>(Kompetentziak zenbakien bidez adieraziko dira)</p> <p>01. Munduko, Espainiako eta Euskal Herriko historian Aro Modernoan</p>	<ol style="list-style-type: none"> 01. Munduko Aro Garaikidean eman diren prozesu historiko nagusiak ulertzen ditu eta beren zergati, bilakaera eta ondorioei azalpena emateko kapaza da. 02. Absolutismoaren ezaugarriak ulertzen ditu eta beste erregimen politikoekin alderatu dezake. 03. Ilustrazioak XVIII. mendeko pentsamolde berri moduan duen garrantzia ulertzen du eta azaltzeko gai da. 04. Antzinako Erregimenaren krisiaren zergatiaz jabetu da eta izan zituen ondorioak -iraultza burgesak- ulertu eta bere momentu historikoan

<p>eta Garaikidean eman diren prozesu historiko nagusiak ulertzea eta beren zergatiak, bilakaera eta ondorioak azaltzen jakitea. 1, 2, 5, 6.</p> <p>02. Absolutismoaren ezaugarriak ulertzea eta beste erregimen politikoekin konparatzea 1, 2, 5, 6.</p> <p>03. Ilustrazioaren garrantziaz jabetzea 1, 2, 5, 6.</p> <p>04. Antzinako-erregimenaren krisiaren zergatiak ulertzea eta izan zituen ondorioez iraultza burgesen garrantziaz jabetzea. 1, 2, 5, 6.</p> <p>05. Industria Iraultzek izan duten garrantziaz jabetzea eta gizartean eragin dituen aldaketak ulertzea. 1, 2, 3, 4, 5, 6.</p> <p>06. Lehen eta Bigarren Mundu Gerren zergatiak eta ondorioak aztertzea, gerra biak konparatzea eta sortutako gerraren kontrako jarrera jabetzea. 1, 2, 3, 4, 5, 6.</p> <p>07. Euskal Herriak eta Espainiak XIX. eta XX. mendetan izan duten bilakaera politiko eta soziala ulertzea eta bi mende hauetan eman diren prozesu historikoen garrantziaz jabetzea 1, 2, 3, 4, 5, 6.</p> <p>08. Mundu mailan zein gure inguru hurbilean azaltzen diren arazo politiko, sozial, kultural eta ingurumen arlokoak kontzientzia hartzea eta jarrera kritikoa izatea. 1, 2, 3, 4, 5, 6.</p>	<p>baloratzen ditu: gure sistema politikoa eta ekonomikoa iraultza hauetan izan duela iturburua ulertzen eta azaltzen du.</p> <p>05. Industria-iraultzak izan duen garrantziaz jabetu eta gizartean eragin dituen aldaketak ulertzen ditu: gure gizarte-antolakuntzak Industria-iraultzan jatorria duela ulertzen eta azaltzen du.</p> <p>06. Lehen eta Bigarren Mundu Gerren zergatiak eta ondorioak aztertuz gero, gerra biak konpara ditzake.</p> <p>07. Mundu mailan zein gure inguru hurbilean azaltzen diren arazoez (politikoak, sozialak, kulturalak, ingurumen arlokoak) kontzientzia hartu eta jarrera kritikoa dauka.</p> <p>08. Gizarte zientziak arloko berariazko prozedurak —grafiko mota ezberdinak, mapa historikoen azterketa, testu iruzkinak— zein prozedura orokorrak —eskimatizazioak, testu azterketak, iruzkinak...— egiten daki.</p>
--	---

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
ordu	1. ebaluazioa	ordu	2. ebaluazioa	ordu	3. ebaluazioa
33	1. Antzinako Erregimenaren krisialdia. 2. Iraultza liberalak eta nazionalismoak. 3. Industria-iraultzak eta gizarte-aldaketak.	33	4. Inperialismoa, gerra eta iraultza. 5. Gerra arteko mundua. Totalitarismoak. Bigarren Mundu Gerra.	34	6. 98ko krisitik Espainiako Gerra Zibilera. 7. Gerra Hotza. 8. Deskolonizazioa eta Hirugarren Mundua. 9. *Mundua, Euskal Herria eta Espainia 1945etik gaur egun arte.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Alde batetik, azalpen teorikoa ematen da ikasgelan: Teknologia berrietan oinarrituz, gai bakoitzaren oinarritzko edukiak lantzen eta azaltzen dira; azaldutakoa zenbait ariketen bidez lantzen da eta gure hurbileko eremura aplikatzeko ahalegina egiten da.

Edukiak ikasteaz gain, zenbait dokumentuz —mapak, argazkiak, artikulak, hedabideetan eta interneten bilatutako informazioak, infogramak...— baliatzen gara gai horiek finkatzeko. Ikasleak lan taldean arituko dira gai lantzen eta bukatzean aurkezpen bat egin beharko dute.

Sintesia eta eskematizazioa, azalpenak eratzeko eta oinarritzko kontzeptuak definitzeko ariketak ere lantzen dira. Lan honen antolaketari garrantzi berezia ematen zaio eta ebaluazioan kontutan hartuko da. Horretaz gain ikasleek digitalizatutako materiala erabiliko dute bai klasean bai bere etxeetan gaia jarraitzeko eta osatzeko

Erabiliko ditugun IKT baliabideak:

- Ikasgaiko webgunea: bertan egongo dira ikasleek beharko dituzten eduki, multimedia-baliabideak (bideoak, audioak, irudiak...) eta esteka interesgarriak
- Arbela digitala mapak, irudiak eta bestelakoak lantzeko erabiliko dira

-Youtuben dauden dokumentalak eta erabiliko dira gai batzuen azalpena osatzeko
 -Edukien kontsultak egiteko, batez ere, Wikipedia eta Elhuyar Hiztegia erabiliko ditugu.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p> <ul style="list-style-type: none"> - DBHko 4. mailako Gizarte Zientzietako irakasgaiaren programazio didaktikoan zehazten diren, eta gaur egun dugun Hezkuntza Dekretuaren araberrako helburu, eduki eta ebaluazio irizpideak erabiliko dira irakasgaia eman eta ikaslea ebaluatzeko orduan. - Aipatutako edukiak suposatzen duten kontzeptuak eta ideiak barneratu eta azaltzen jakitea. - Barneratutako kontzeptuak erabiliz, Gizarte Zientzietako prozedura zehatzak egiten jakitea: Testu lanketak, kausa efektuzko ariketak, sintesi ariketak, etab. - Taldeka nahiz bakarka burututako lanak. Ahozko adierazpena sustatzeko asmoz ebaluazio guztietan lan kooperatiboa presente egongo da. - Ikaskide eta irakaslearekiko errespetuzko jarrera klasean urtean zehar. - Gaiko hiztegiaren erabilpen zuzena ahozko nahiz idatzizko adierazpenetan. - Azterketetan argitasuna, garbitasuna eta egokitasuna baloratuko dugu. - Aldi berean irakaskuntza heziketa prozesuan derrigorrez agertzen diren hiru eduki mota ere barnean hartzen dira: <ol style="list-style-type: none"> 1. Eduki kontzeptualak. 	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p> <div style="border: 1px solid black; padding: 5px; text-align: center; margin: 10px 0;"> KALIFIKAZIOAREN EGITURA </div> <table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="padding: 5px;">Azterketak <i>Eduki-kontzeptualak eta prozedurazkoak.</i></td> <td style="text-align: center; padding: 5px;">%50</td> </tr> <tr> <td style="padding: 5px;">Proiektuak eta lan kooperatiboa</td> <td style="text-align: center; padding: 5px;">% 20</td> </tr> <tr> <td style="padding: 5px;">Bakarkako lan idatzia</td> <td style="text-align: center; padding: 5px;">%10</td> </tr> <tr> <td style="padding: 5px;">Zeharkako konpetentziak <i>Ikasgelako behaketa sistematikoa</i></td> <td style="text-align: center; padding: 5px;">% 20</td> </tr> </table>	Azterketak <i>Eduki-kontzeptualak eta prozedurazkoak.</i>	%50	Proiektuak eta lan kooperatiboa	% 20	Bakarkako lan idatzia	%10	Zeharkako konpetentziak <i>Ikasgelako behaketa sistematikoa</i>	% 20
Azterketak <i>Eduki-kontzeptualak eta prozedurazkoak.</i>	%50								
Proiektuak eta lan kooperatiboa	% 20								
Bakarkako lan idatzia	%10								
Zeharkako konpetentziak <i>Ikasgelako behaketa sistematikoa</i>	% 20								

<p>2. Prozedurazko edukiak</p> <p>3. Jarrerazko edukiak</p> <p>- Ebaluazio formatiboa, bakarkakoa, jarraia, globala-integrala eta bideratzailea izango da, ikasleak berak burutu dituen ikasketak eta ikasgelan garatutako programazio zehatzak eta ikasgelako dinamika bera kontuan hartuko dituen ebaluazioa.</p>	
	<p>1. Noiz ebaluatuko da? Ebaluaketak hiru ebaluazioetan zehar egingo dira ikasturtean zehar ikastetxeak ezarritako datetan (jada ez da ezohikorik izango).</p> <p>2. Ebaluazioen jarraikortasuna: Arretaren eta zenbait prozeduren kasuan ebaluazioa jarraia izango da. Berreskurapenak egingo dira kontzeptuak eta zenbait prozedura gainditu ahal izateko.</p> <p>3. Hiru atal kontuan hartuko dira ebaluatzerakoan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Proba idatzietan: prozeduren eta kontzeptuen atalak orekatuak egongo dira. Hala ere, zenbait gairen ezaugarriengatik oreka horri ezin izango zaio eutsi. - Gutxienez bi proba idatzi egingo dira ebaluazio bakoitzean. Hauen batzbestekoa egingo da baldin eta kalifikazioa gutxienez 3/10 bada. - Ikasgelaren behaketa sistematikoak 2 puntuko balioa du: ordukotasuna, lanak epean aurkeztea, errespetua, euskararen erabilera, lanarekiko jarrera... zeharkako kompetentziak ebaluatuko dira. Batzbestekoa egiteko azterketan gutxienez 3/10eko nota izan behar du eta gainerako ataletan gutxienez 5/10etik <p>Oharra: ikasle bat ez bada azterketara aurkezten ez bada JUSTIFIKANTE MEDIKOA ekarri beharko du edo bere gurasoek deitu beharko dute egun berean. Hau aurkeztu ezean ikasleak gai horren azterketa hurrengo gaiarekin batera egingo du.</p> <p>Kasu batzuetan, taldeko lanak egiten direnean, lan hauek puntuazio berezia izango</p>

	<p>dute. Irakasleak ikasle bakoitzaren jarrerren, prozeduren eta kontzeptuen bereganatze prozesuaren jarraipen zehatza egingo du bere ebaluazio koadernoan.</p> <p><i>Kurtso bukaerako nota</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Hiru ebaluaketen media izango da. - Irakaslearen prozesu jarraia kontuan hartuko da, eta notan islatuko da.
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [<i>medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...</i>].</p>	
<p>BERRESKURAPEN SISTEMA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazioak berreskuratu ahal izateko gutxieneko helburuak bete beharko dira. Irakasleak laguntza berezia eskainiko die berreskuratu behar duten ikasleei: beraiantzako ariketak, azalpen bereziak,... - Suspenditutako ebaluazioak berreskuratu ahal izango dira ebaluazio bakoitzaren ondoren. - Nola? Prozedurak eta kontzeptuak berreskuratuz proba idatzi baten bidez. Berreskurapen proba idatzi bakarra egin ahal izango da ebaluazio bakoitzaren ondoren. Proba hori egindako azterketen galderaz osatua egongo da. Portaera ez da kontutan izango. <p>EZOHIKO EBALUAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jada ez da ezohiko ebaluaziorik egingo. Hortaz, ebaluazio bakoitza errekupeatzeko aukera egongo da irakasle eta ikasleak horretarako adostutako datetan. <p>ERREPIKATZAILEEN JARRAIPENA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasle errepikatzaileei jarraipen berezia egingo zaie. Aurreko ikasturtean gure ikasgaia ez bazuten gainditu, indartze ariketa bereziak emango zaizkie. 	

OHARRAK / OBSERVACIONES

Programazioak ikasturtean zehar aldaketak izan ditzake hautemandako behar berrietara egokitzeko. Hori gertatuz gero, dokumentu honetan bertan zehaztuko dira egindako aldaketak.